

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

8877 *11/2021 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 27koa, Enplegua defendatzeko, ekonomia suspertzeko eta langile autonomoak babesteko presako neurriei buruzkoa.*

I

SARS-CoV-2ak eragindako osasun-larrialdiak enpresei ekarritako ondorio txarrek bere horretan jarraitzen dute, eta nolabaiteko ziurgabetasuna dago, halaber, enpresa-jarduera suspertzeko eta lehengoratzeko erabateko gaitasunik egongo ote den, une honetan jarduera asimetricoa eta sektorizatua dela uste baita. Hala, bada, eutsi egin behar zaie krisi sanitarioa hasi zenetik onartutako arauetan aurreikusitako salbuespenezko neurriei, nahiz eta egoera sanitarioa pixkanaka normalizatuko den ustez.

Era berean, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera maiatzaren 9an amaitu bazen ere (errege-dekretu horren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko), osasungintzako agintariek eskumenak dituzte SARS-CoV-2ak eragindako pandemiaren ondoriozko krisi sanitarioa prebenitzeko, geldiarazteko eta arintzeko ezohiko neurriak hartzeko —legedi arruntean aurreikusitakoak—, enpresa-jardueraren garapen normalizatua bultzatzearen.

Espainiako ekonomia suspertzeko prozesuaren barruko trantsizio-fase batean dago; batetik, txertaketa-prozesua bide onetik doalako, eta, bestetik, adierazle makroekonomikoen seinale positiboak ematen dituztelako. Izan ere, intzidentziaren bilakaera motelaraziaren ondorioz, autonomia-erkidegoek murriztu egin dituzte pixkanaka mugikortasunari eta jarduerari jarritako mugak.

Fase berri honetan, politika publikoek proposatutako pizgarriek lagundu beharko diote susperraldiari, lan-merkatua suspertzen lagunduz eta pandemiak eragindako egiturazko kaltea minimizatuz, era horretan SARS-CoV-2 birusaren krisiak eztanda egin aurreko jarduera ekonomikoaren mailak lortu ahal izan daitezen.

2021eko urtarrilaren 27an, bestalde, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriak Indartzen eta Finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu zen *Estatuko Aldizkari Ofizialean*. Arau horren I. tituluak Enpleguaren Aldeko IV. Gizarte Akordioa jasotzen zuen (IV. EAGA), Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioak eta gizarte-eragileek osatutako Laneko Hiruko Jarraipen Batzordearen barruan adostutakoa.

Bertan hartutako neurri guztiak —bereziki, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, bai eta haiekin batera doazen neurri sozial eta osagarriak ere— eraginkorrak eta mesedegarriak izan dira enpresa-ehuna zaintzeko eta langileak babesteko. Legedi arruntak araututako prestazio-baldintzak hobetu dituzte eta, batez ere, enpleguari eusten lagundu dute, aldi baterako enplegua barne; horrelakorik ezean, enpleguaren murrizketa iraunkorra gertatuko zatekeen, nekez berreskuratzeko modukoa.

Horrela, Laneko Hiruko Jarraipen Batzordean berriz bildu izan dira UGT eta CCOO erakunde sindikalak, CEOE eta CEPYME patronalak eta Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa eta Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, enpleguaren aldeko neurriak hartzeko beharra edo, hala zegokionean, neurrien indarraldia luzatzeko beharra aztertzeko, SARS-CoV-2 birusaren krisiari aurre egiten jarraitzearen.

2021eko maiatzaren 26an, Laneko Hiruko Jarraipen Batzorde horretan, eta elkarrizketa sozialaren ondorioz, Enpleguaren Aldeko IV. Gizarte Akordioa lortu zuten (V. EAGA). Akordio horren edukiak erakusten du, hain zuzen ere, sinatu duten antolakunde eta ministerioek konfiantza dutela 2020ko urriaren 1az geroztik gure ekonomiari ezinbesteko laguntza ematen ari zaizkion neurrietan, eta bat datoz alderdi guztiak neurri horiei behar den denboran eutsi behar zaiela suspertze iraunkorra eta inklusiboa egoki bermatuko bada.

Horrenbestez, V. EAGaren helburua (edukia errege lege-dekretu honetan islatzen da) hauxe da: enpleguaren alde egiteko eta enpresen etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko beharrezko diren zenbait neurri hartzea, helburu hauek betetzearren:

a) Krisi sanitarioa hasi zenetik eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren baldintzetan hartu diren malgutasun-neurri guztiak aplikatzen jarraitzea, enpresak Gizarte Segurantzari egiten dituzten kotizazioetatik salbuesteko ezohiko neurriak barne.

b) Indarraldia luzatzea langileen langabeziagatik babesaren arloan Enplegua Babesteko Neurri Sozialei buruzko irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan jasota dauden ezohiko neurriak.

c) Batetik, behar den egonkortasuna bermatzeko beharrezko irizten zaien eta bi artikuluko hauek eta xedapen gehigarri honetan aurreikusten diren enplegu-babeserako neurri osagarri guztien indarraldia luzatzea, eta, hala, kaleratzeak izatea eta lanpostuak kentzea eragozteko. Hona artikulukoak eta xedapen gehigarri horiek: COVID-19aren ondorioak arintzeko enpleguaren esparruan neurri osagarriak hartzen dituen apirilaren 12ko 3/2021 Legearen 2. eta 5. artikulukoak, eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarri Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretuan berridatzia. Bestetik, dibidenduen banaketari eta gardentasun fiskalari buruzko eta aparteko orduak eta esternalizazio berriak erabiltzeko buruzko mugei eustea.

Era berean, eta orain hartutako neurriak ebaluatzeko, beharrezkotzat jo da Laneko Hiruko Jarraipen Batzordeari berriz agintzea errege lege-dekretu honetan ezarritako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egin dezan, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak egin zuten bezala. Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapenaren babesean eratu zen, eta haren eginkizunak egokitu egin ziren Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurrien eta industria-sektorearen lehiakortasunaren ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian.

II

Halaber, unibertsitateen irakaskuntza-esparruan eta, bereziki, irakasle elkartuei dagokienez, bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako neurriak ezarri behar dira, unibertsitateek irakasle elkartu horien kontratuak berritu ditzaten bultzatzeko.

SARS-CoV-2 birusak eragindako egoera sozioekonomikoaren ondorioz, zenbait irakasle elkartu lan-harremanak azkendu edo eten dizkiete, edo bertan behera gelditu zaie esparru akademikotik kanpoko lanbide-jarduera.

Hori horrela, komeri da irakasle elkartuen kontratu horiek berritzeko prozesuetan unibertsitate-eremutik kanpoko jardura bat egiaztatzeko betekizunetik salbuestea, salbuespen gisa eta 2021-2022ko ikasturtera mugatuta. Neurriak aukera ematen die unibertsitatei kontratu horiek berritzeko, hau da, enplegu horiei eustiaz gain irakasleen gaitasunari eta kalitateari ere eusteko.

Horrez gain, errege lege-dekretu honek Hazkundera eta Enplegua Hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legea aldatzen du azken xedapenetako lehenengoan; hala, bada, mugako adimen-gaitasuna duten pertsonen kontratu mugagabea egiteagatik, hobari bat aitoritzen die enplegatzaileei Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotan, pertsona horiek enplegua lor dezaten sustatze aldera. Neurri horrekin batera helburu bereko beste batzuk hartu dira, haren osagarri, aldi berean izapidetu den errege-dekretu proiektu baten bidez, hori baita neurri horiek hartzeko tresna juridiko egokia, erregelamendu-arauak aldatzea baitakarte, eta aipatutako kolektibo onuradun horren definizioa jaso da bertan, orobat, lan-ondorioak izan ditzan.

Izan ere, SARS-CoV-2 birusaren pandemiak eragindako larrialdi sanitarioak lan-merkatuan izan dituen ondorio txarrek are eragin larriagoa izan dute pertsona kalteberenen zenbait kolektibotan, hala nola mugako adimen-gaitasuna duten pertsonen taldean kasu honetan, lan-merkatuan sartzeko aukerak murriztu izan baitzaizkie, bai eta, ondorioz, gizarte-bizitzan eta ingurunearekiko interakzioan parte-hartze aktiboa izateko aukerak ere. Horregatik, egungo inguruabar sanitario, sozial eta ekonomikoan, ezinbestekoa da kolektibo hori lan-merkatuan sartzen lagunduko duten tresnak berehala abiaraztea. Hala, bada, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona horiei kontratu mugagabeak egiteko pizgarri eraginkor berri bat legez aurreikusiz, osorik betetzen da abuztuaren 1eko 26/2011 Legearen seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako agindua (26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora moldatzeko arauak ezartzen dituena); izan ere, xedapen horrek («Mugako adimen-gaitasuna duten pertsonen aldeko neurriak») Gobernuari hamabi hilabeteko epea ematen zion mugako adimen-gaitasuna duten pertsonak laneratzea sustatzeko ekintza positiboko neurriak ezar zitzen.

Gainera, era horretan, erantzun egiten zaie Arartekoak behin eta berriz egindako gomendioei, bai eta desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzan dituzten antolakundeei ere, behin eta berriz adierazi baitute kolektibo zehatz horrentzako enplegua sustatzeko neurriak ahalik eta azkarren aurreikusteko beharra dagoela.

Neurria errege lege-dekretu honen bidez onesteko aparteko eta presako beharrezko dagoela egiaztatuta gelditu da epe hori amaitu zenetik igarotako denbora-tartearren argitan, eta kontuan hartuta errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak tresna baliotsu bat aurreikusten duela mugako adimen-gaitasuna duten pertsonen kontratu mugagabeak egitea bultzatzeko, pertsona horiek mugatuak izan baitituzte lan-merkatuan sartzeko aukerak pandemia honetan. Eta neurri hori ohiko bidetik edo legeak parlamentuan izapidetzeko presako prozeduratik egiteko behar den baino epe laburragoan onetsi behar da, halaber.

Azken xedapenetako bigarrenean, bestalde, unean uneko aldaketa bat egin da Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzeko azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuan.

Zehazki, 17/2020 Errege Lege-dekretuak, maiatzaren 5ekoak, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira, langabezia-prestazioa jasotzeko ezohiko bidea aitortzen zien ikuskizun publikoetako artistei, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak araututako kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduren eraginpean ez bazuden.

Era horretan, egoera hartan biziki kaltebera zen kolektibo bati heldu nahi zitzaion. Izan ere, arte-jarduera berez aldizkakoa denez, ezin zituzten bete langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea edukitzeko baldintzak. Horretarako, langabezia-prestazioa jasotzeko ezohiko bide bat zabaldu zen ikuskizun publikoetako artistentzat, eta horretaz baliatu ahal ziren, beren lan profesionala egiteko erabiltzen zituzten lokalak edo instalazioak (irekiak zein itxiak) COVID-19a zela-eta ixteko emandako aginduaren ondorioz jarduerarik ez bazuten.

Osasungintzako agintaritzak ezarritako euste-neurriek eta mugek eta pandemiaren bilakaerak ohiko kultura-jarduera eragozten zuten heinean, beharrezkoa izan zen 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzea kolektibo horren langabezia-prestaziorako ezohiko bidea, azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuari jarraikiz.

Era berean, xedapen horretan beste kolektibo batzuk ere babestu ziren, beren lanbidearen ohiko jardunaren berezitasunengatik langabezia-prestazioaren estaldura-mekanismo orokorreari heltzeko zailtasunak baitzituzten. Alde batetik, kulturaren sektoreko teknikariak eta laguntzaileak, kultura-ikuskizunak eta -jarduerak egiteko ezinbesteko zerbitzu teknikoak ematen baitituzte eta, artistak bezala, aldizkakotasunaren eta jarraitutasunik ezaren mende baitaude lanean; beharrezkoa da, horregatik, mekanismo bat antolatzea prestazioa jaso dezaten.

Bestaldetik, zezenketako profesionalak; haiei, hasiera batean, zezen-plaza, -esparru eta -instalazioetan egindako jarduerak eteteak eragin zien, eta, ondoren, osasungintzako agintaritza eskudunek erabakitako euste-neurriek eta mugek.

Horiek horrela, langileak babesteko gainerako ezohiko neurriak zabaltzearekin bat etorritik eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuari jarraikiz, 2021eko maiatzaren 31ra arte luzatu zen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan aitortutako prestazioen eta sorospenen iraupena.

Neurri horien indarraldia 2021eko irailaren 30era arte luzatu behar da orain, gainerako babes-mekanismo sozialen indarraldiaren antzera.

Artisten langabezia-prestazioa jasotzeko ezohiko bidea zabaldu behar da, halaber, prestazio hori hauei aitortu ahal izan dakien: COVID-19ak eragindako egoera sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratuak alarma-egoera amaitu ondoren eta neurri sanitarioek eta euste-neurriek eragindako murrizketak gorabehera beren jarduera egin ahal izan dutenei. Horretarako, 2020ko ekainaren 11tik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean gutxienez bost eguneko jarduera izatea ezartzen da; alegia, prestazioa ezohiko bidetik eskuratzeko maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuan hasieran eskatutako hogeitun egunen laurdenak. Izan ere, alarma-egoera lehen aldiz deklaratu zenetik (2020ko martxoaren 14a), jokaespazioak itxita egon ziren ia irailaren 30era arte, eta pixkanaka ekin zitzaion denboraldiari, eta guztiz ireki ezinik, itxiera perimetralen, edukiera-muga aldakorren eta ekitaldiak COVID-19aren eraginez etengabe bertan behera gelditzearen ondorioz. Aldagai horiek guztiak batuta, hau ondoriozta daiteke: aparteko prestazioa jasotzeko ezarritako zerbitzu-prestazioko aurretiko denboraren arabera, adierazitako aldi horretan alta emanda bost egun egon direla egiazta dezaten eskatu behar da; hau da, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuan eskatutakoaren % 25. Izan ere, kalkuluen arabera, espazioak kasurik onenean beste horrenbeste egon dira guztiz irekita. Gainerakoan, betekizunak eta baldintzak bat datoz prestazioa ezohiko bidetik eskuratzeko hasierako betekizun eta baldintzekin, eta haren iraupena 2021eko irailaren 30era artekoa da.

Era berean, luzatu egiten da eskatutako egunak zenbatzeko kotizazio-aldia, kulturaren sektoreko teknikariei eta laguntzaileei aparteko langabezia-sorospena aitortzeko; horrela, bada, sorospena jasotzeko eskubidea sortzeko eskatzen den gutxieneko hogeita hamabost eguneko kotizazio-aldia 2021eko maiatzaren 31ra arte zenbatuko da, eta pandemian zehar langile horiek lan egin duten egunak kontuan hartu ahal izango dira.

III

Kontuan hartuta SARS-CoV-2 birusak sortutako pandemiaren ondorioak ez direla amaitzen, berriz, uste izatekoa da jarduera jakin batzuk berriro eten beharko direla. Testuinguru horretan, biziki larria da enpresa txiki eta ertainen buru dauden langile autonomoen egoera; izan ere, horietako askok eten egin zuten jarduera, osasungintzako agintaritzek ezarritako euste-neurrien eta mugen ondorioz, eta haien diru-sarrerak amaitu egin ziren; are gehiago, jarduera bertan behera utzi behar izan ez zuten askok, edo alarma-egoera amaitu ondoren hura berriz hasi duten askok, fakturazio murriztagoa izan dute, eskaria txikiagoa izan delako eta COVID-19a zela-eta ezarritako mugen ondorioz.

Gobernuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuenetik, ezohiko neurriak ezarri ditu gizarte-segurantzaren arloan, SARS-CoV-2 birusak eragindako krisi sanitarioaren ondorioek gehien erasandako langile autonomoen alde; hala ere, maiatzaren 31n amaituko da urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan hartutako eta aurreikusitako azken neurrietarako jarritako epea.

Horrela, bada, jarduera eteteko ebazpen baten bidez jarduera guztiz utzi behar duten langile autonomoen alde irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.1 artikulua ekarritako prestazioa bezala arautu zen jarduera uzteagatik aparteko prestazioa, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren arabera, 5. artikuluan.

Era berean, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretu horren 6. artikulua aukera eman zien langile autonomoei jarduera uzteagatik aparteko prestazioa jasotzeko, baina,

prestazio hori jasoko badute, jarduera ez itxi arren diru-sarrera murrizagoak izan behar dituzte eta ez dute aukerarik izan behar errege lege-dekretu haren 7. artikuluan edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan arautua dagoen jarduerak uzteagatiko prestazio arrunta jasotzeko (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

Era berean, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 8. artikulua jarduera uzteagatiko aparteko prestazio bat ezarri zuen urtearen lehen erdian gutxienez hiru hilabetez lanean diharduten sasoikako langile autonomoentzat. Bigarren xedapen iragankorrak, berriz, luzatu egin zuen jarduera uzteagatiko aparteko prestazioaren iraunaldia jarduera osoa aldi baterako etendako langile autonomoentzat; baina, luzatu ahal izateko, batetik, etete horrek agintaritzak eskudunaren ebazpen baten ondoriozkoa izan behar du betiere, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.1 artikuluan jasotako eta COVID-19 birusaren zabalkundea geldiarazteko neurri gisa, eta, bestetik, prestazioa aitortzea ekarritako jarduerarik ezaren eskakizuna bete behar dute betiere otsailaren 1ean artean.

Neurri horiek, adierazi bezala, 2021eko maiatzaren 31n amaituko dira, SARS-CoV-2 birusak eragindako krisi sanitarioa oraindik konpondu ez bada ere, eta, horrenbestez, 2021eko irailaren 30era arte atxiki behar da jarduera uzteagatiko prestazioa hura jasotzeko baldintzak betetzen dituzten langile autonomoentzat, eta, era berean, prestazioa jasotzeko aukera eman behar zaie beste langile autonomo batzuei, baldin eta, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa jaso ez badute ere, errege lege-dekretu honek prestazioa jasotzeko eskubidea edukitzeko eskatutako baldintzak egiaztatzen badituzte, eta 2021eko irailaren 30era arte jaso ahal izango dute haiek ere.

Horrez gain, ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako neurri bat gehitu da, langile autonomoak kotizaziotik salbuesteko. Neurri berri horien helburua da jarduera uzteagatiko prestazio arrunterako eskubidea sortzen duen gabezia duten langile autonomoak babestea, bai eta eskatutako gabezia izatera iristen ez direnak edo sasoikako langile autonomoak direnak ere babestea, hala jarduera erabat utzi bada, nola zerbitzuak norberaren edo besteren kontura ematen badituzte, baldin eta errege lege-dekretu honetan eskatutako baldintzak betetzen badira.

Gainera, eta orain hartutako neurrien balorazioa egiteko, beharrezkotzat jo da Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera lehengoratzeko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordearen esku uztea errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrien jarraipena eta ebaluazioa; ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren babesean eratu zen batzorde hori.

IV

Errege lege-dekretuak bederlatzi artikulatu ditu, bi titulutan banatuta; zazpi xedapen gehigarri; bi xedapen iragankor; bost azken xedapen, eta eranskin bat.

Enpleguaren Aldeko V. Gizarte Akordioa I. tituluaren lau artikuluetan jasotzen da, bai eta lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ere.

1. artikulua 2021eko irailaren 30era arte luzatzen ditu egoera pandemikoarekin zerikusia duten zergatietan oinarritutako ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazio espedienteak, gizarte- eta enplegu-babeseko neurri hori hedatzeko asmoz, egoera horretan oso eraginkorra izan baita. Era berean, luzatu egingo da espediente horiei lotutako kotizazioaren arloko ezohiko neurrien indarraldia, baina Gizarte Segurantzako kotizazioen salbuespen-ehunekoa eguneratuta, egoera epidemiologikoa hobetu dela, murrizketak malgutu direla eta jarduera handitu dela kontuan hartuta.

2. artikulua errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera gertatzen diren ezintasunen eta mugen ondorioz enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente berriei aplikatu beharreko erregelak arautzen ditu, eta luzatu egiten du urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan dagoeneko aurreikusitako indarraldia, baita Gizarte Segurantzarako kuotetatik salbuesteari buruzko haren araubidea eguneratu ere.

3. artikulua eutsi egiten die irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako ezohiko neurrien eduki osagarriari.

4. artikulua, berriz, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan araututako langileak babesteko ezohiko neurriak jasotzen ditu, manu horretan jasotako berezitasunekin eta erreferentziekin, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eremuko langabeziagatiko babesari buruzkoak barne, hala nola aldizkako kontratu finkoa duten pertsonentzako aparteko prestazioa.

5. artikulua kotizaziotik salbuesten ditu jarduera uzteagatiko prestazio-modalitatearen bat urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren babesean jaso duten langile autonomoak.

6. artikulua jarduera uzten dutenentzako aparteko prestazio hau arautzen du: COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritzak eskudunak emandako ebazpenaren ondorioz jarduera osoa aldi baterako etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoentzako.

7. artikulua jarduera uzteagatik ematen den eta norberaren konturako lanarekin bateragarria den prestazioaren iraunaldia luzatzea aurreikusten du.

8. artikulua langile autonomo hauentzat ezartzen du jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa: jarduneari ari diren, 2021eko maiatzaren 31n urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzen ari diren eta errege lege-dekretu honen 7. artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatiko prestazio arrunta jasotzeko eskubiderik ez duten langile autonomoak.

Azkenik, 9. artikulua jarduera uzten duten sasoikako langile autonomoentzako aparteko prestazioa jasotzen du.

Halaber, lehen xedapen gehigarriak barnean hartzen ditu aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteengatiko estaldura-tasa handia eta jarduera lehengoratzeko tasa txikia duten sektoreetako enpresak, baldin eta 1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz 2021eko irailaren 30era arte automatikoki luzatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak badituzte, enpresa horien jarduera arau honen eranskinean aurreikusitako EJSN-09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako koderen batean sailkatuta badago indarrean jartzeko unean, eta enpresak xedapen gehigarri horretako apartatuetako batean sartuta badaude.

Bigarren xedapen gehigarriak Laneko Hiruko Jarraipen Batzordearen ohiko eginkizunak aipatzen ditu berriz. Eta haren osaera eta aurreikusitako bilera-egutegia ez dira aldatzen.

Hirugarren xedapen gehigarriak, berriz, enpresentzako betebeharrak xedatzen ditu aldizkako kontratu finkoa duten langileei eta egun jakin batzuetan lan finko eta aldizkakoak egiten dituzten langileei dagokienez; hauek, besteak beste: langileei teoriarik deitu beharreko aldietan haiek benetan laneratzea, xedapen horretan jasotako deskribapenarekin bat etorritik, eta arau hau indarrean jartzen denean indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek edo arau honen ondotik baimendutakoek haiei ere eragitea, baldin eta, arlo sanitarioko murrizketen eta euste-neurrien ondorioz, deitu behar zaien aldi horretan jarduera gauzatzetik ez badute.

Halaber, berariaz jasotzen ditu irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan araututako aparteko prestazioaren eremua eta irismena (4.2 artikulua luzatu egiten du prestazio horren indarraldia). Hala, aplikagarria izango da langile horiei teoriarik deitu beharreko aldia ez badago ekainaren 1etik irailaren 30era arteko epearen barruan, behin epe hori amaitu ondoren, bai eta jardueraren etenaldi arruntetan benetako laneratzea dagoen kasuetan ere, eta xedapen gehigarri honetan araututa ez dauden eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua aipatutako langileak ukitzen dituzten gainerako egoeretan.

Laugarren xedapen gehigarriak berariaz jasotzen ditu Gizarte Segurantzako kotizazioko salbuespenak dituzten ondoreak, eta horiek aplikatzen diren aldia, ondorio guztietarako, kotizatutako okupazio-aldizkat hartzen ditu.

Bosgarren xedapen gehigarriak unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileei buruzko neurriak ezartzen ditu; zehazki, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 53. artikuluan arabera, aldi baterako eta unibertsitatez kanpoko jarduera

profesional bat izateagatik denbora partzialeko arduraldiarekin kontratatzen dituzten irakasle elkartuei dagokienez.

Seigarren xedapen gehigarriak, berriz, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua indarraldia luzatzea aurreikusten du; artikulua horrek Mecuida plana arautzen du.

Azkenik, zazpigarren xedapen gehigarriak Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera lehengoratzeko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordearen esku uzten du arau honen 5., 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan eta bigarren xedapen iragankorrean ezarritako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea (batzorde hori ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuan ezarrita dago).

Lehenengo xedapen iragankorrak azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean egin diren edo aldeko ebazpena jaso duten prestazio- edo sorospen-eskabideei aplikatu beharreko araubidea ezartzen du.

Bigarren xedapen iragankorrak langile autonomoei jarduera uzteagatik ematen zaien aparteko prestazioa ematen segitzea arautzen du, COVID-19 birusaren hedapenari eusteko urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan eta bigarren xedapen iragankorrean jasotako neurri gisa agintari eskudunek emandako ebazpenaren ondorioz jarduera osoa aldi baterako eteteak langile horiei eragiten dienerako.

Azken xedapenei dagokienez, azken xedapenetako lehenengoak abenduaren 29ko 43/2006 Legearen aldaketa jasotzen du: horren 2. artikuluari 4 quater apartatua gehitzen zaio; haren arabera, mugako adimen-gaitasuna duten pertsonak denbora mugagaberako kontratatzen dituzten enplegataileek hoberi baterako eskubidea izango dute Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotan.

Azken xedapenetako bigarrenak ulean uneko aldaketak egiten ditu azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuan, ikuskizun publikoetako artisten, kulturaren sektoreko teknikarien eta laguntzaileen eta zezenketako profesionalen langabezia-prestazioaren iraupena luzatzeko, eta lehen bi kolektiboek prestazio horretarako ezohiko bidea izan dezaten.

Azken xedapenetako hirugarrena errege lege-dekretu hau emateko eskumen-tituluei buruzkoa da; azken xedapenetako laugarrenak Gobernuari ahalmena ematen dio arau honetan aurreikusitakoa garatzeko eta betearazteko; eta azken xedapenetako bosgarrenak, berriz, hura indarrean jartzeari buruzkoa da.

V

Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua aparteko eta presako beharrez dagoen egoerarako xedatzen duen aukerari dagokionez, errege lege-dekretu honen edukia arrazoi objektiboetan, egokitasun politikoan eta aparteko presan oinarritzen da —besteak beste, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren ondorioz oraindik amaitu ez den salbuespeneko egoera larrian—, eta horrek ezinbesteko egiten du erantzun egokia ematea gizarte- eta lan-eremuan planteatzen diren premiei.

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrez egonez gero», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarri juridikoa; 68/2007 epaia, 10. oinarri juridikoa, eta 137/2011 epaia, 7. oinarri juridikoa), presako legegintza egiteko arrazoiak egoera jakin batean laguntzea izan behar du, Gobernuaren helburuen barruan betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen duen egoera batean —esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko

litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Funtsean, errege lege-dekretu hau onartzeko ezohiko eta presako beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 28ko 14/2020 epaia, 4. oinarri juridikoa), halako eran non erantzun egokia emango baita enpresen jarduera ekonomikoa eta ekoizpena berriz bere onera ekartzeko, segurtasun juridikoa bermatzeko eta deskribatutako egoeran kalteberak izan daitezkeen taldeak babesteko; aparteko eta presako ezaugarriek definitzen dituzte horiek.

Azaldutako arrazoi guztiek justifikatzen dute, zabal eta arrazoituta, arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa). Bestalde, beharrezkoa den lotura dago azaldutako urgentziazko egoeraren eta horri aurre egiteko hartutako neurri zehatzaren artean; beraz, ez da egon adierazitako konstituzio-tresnaren abusuzko erabilerarik edo erabilera arbitrarioak.

Laburbilduta, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurrietan Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua aurreikusten dituen aparteko eta presako beharrezanaren inguruabarrak gertatzen dira, aurretik azaldu bezala. Gainera, lortu nahi diren helburuak ezin dira lortu lege bat presako prozeduraren bidez izapidetuta.

Halaber, errege lege-dekretu honek ez du eraginik edukiko Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

VI

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan erregulazio onaren printzipioak ezartzen dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Eta errege lege-dekretu honek printzipio horiek betetzen ditu.

Premia- eta efikazia-printzipioekin bat etorritik, interes orokorreko arrazoi batek justifikatzen du araugintza-ekimena, behin lortu nahi diren helburuak identifikatuta eta errege lege-dekretua jota tresna egokientzat helburu horiek lortuko direla bermatzeko. Bestalde, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak egokiak eta neurritzkoak dira eurak onartu beharra ekarri duten beharrezanetarako. Egiaztatu da ez dagoela beste neurririk eskubideak gutxiago murriztuko lukeenik edo jasotzaileei betebehar gutxiago ezarriko liekeenik. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza-ekimen hau gauzatzean koherentzia gorde da gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta segurtasuneko araugintza-esparru bat sortu da, erraztasunak emango dituen araua ezagutzeko eta, ondorioz, ukitutako pertsonen eta enpresek jarduteko eta erabakiak hartzeko.

Arau honek gardentasunaren printzipioa ere betetzen du; izan ere, argi eta garbi zehazten ditu bere arrazoiak eta helburuak, azalpen-zatian eta memoriaren dagokion apartatuan. Beste alde batetik, ez dira egin herritarrek parte hartzeko izapidetutako, Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26. artikuluan ezartzen dituenak, artikuluko horren 11. apartatuan errege lege-dekretuetarako ezartzen duen salbuespenari helduta.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 7. eta 17. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da; horiek Estuari eskumen eskusiboak ematen dizkiote lan-arloko legediaren gainean eta Gizarte Segurantzaren oinarrizko legediaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimena baliatuz, Gobernuko hirugarren presidenteordearen, Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroaren eta

Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako ministroaren proposamenari jarraikiz, eta Ministro Kontseiluak 2021eko maiatzaren 27ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

Enpleguaren Aldeko V. Gizarte Akordioa

1. artikulua. *Iraunaldia luzatzea egoera pandemikoarekin eta kotizazio-arloko ezohiko neurriekin lotutako arrazoietan oinarrituta dauden ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei.*

1. Automatikoki luzatuko da errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denean indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen iraunaldia, 2021eko irailaren 30era arte, baldin eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta badaude.

2. Era berean, jarduteko ezintasunak direla-eta hasitako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen iraunaldia luzatutzat joko da, baldin eta ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera baimendu badira (24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena). Horrela, bada, espediente horiek indarrean jarraituko dute, dagozkien ebazpen baiasleetan —esanbidezkoetan edo administrazio-isiltasun bidezkoetan— jasotako baldintzetan.

Hala ere, 2021eko ekainaren 1etik irailaren 30era arte, artikulua honen 3. apartatuan jasotako salbuespen-ehunekoak aplikatuko zaizkie aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente horiei, jarduteko ezintasunengatik artikulua hauetan oinarrituta baimendutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetarako: Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikulua edo Enpleguaren Defentsarako Neurri Sozialak Indartu eta Finkatzeari buruzko 2021 urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikulua.

3. Jarduteko ezintasunengatik aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek, baldin eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan edo urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera baimendu badira, indarrean jarraituko dute ebazpen baiasleetan —esanbidezkoetan edo administrazio-isiltasun bidezkoetan— jasotako baldintzetan, eta aplikatu egingo zaizkie irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan aurreikusitako kotizazioaren arloko ezohiko neurriak, jarduera itxita dagoen aldian eta 2021eko irailaren 30a arte.

4. Jardueraren garapen normalizatua mugatzeagatik indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan edo urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan oinarrituak baldin badaude, automatikoki luzatuko zaie iraunaldia, 2021eko irailaren 30era arte.

Espediente horiei salbuespen hauek aplikatuko zaizkie, 2021eko ekainaren 1etik aurrera:

a) Jarduera etenda daukaten enpresa horietako langileei dagokienez eta eteteak eragiten dien lanaldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, 2021eko ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean sortutako enpresa-ekarpenaren % 85era, % 85era, % 75era eta % 75era iritsiko da salbuespena, hurrenez hurren, enpresak 2020ko otsailaren 29an 50 langile —edo horien parekoak— baino gutxiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) Jarduera etenda daukaten enpresa horietako langileei dagokienez eta eteteak eragiten dien lanaldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez, 2021eko ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean sortutako enpresa-ekarpenaren % 75era, % 75era, % 65era eta % 65era iritsiko da salbuespena, hurrenez hurren, enpresak 2020ko otsailaren 29an 50 langile —edo horien parekoak— edo gehiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

5. Aurreko 2., 3. eta 4. apartuetan aipatutako salbuespenak hauei aplikatuko zaizkie: langileei eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenari, bai eta baterako bilketaren kuotei ere (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

2., 3. eta 4. apartuetan aipatzen diren kuota-salbuespenak aplikatzeko prozedura eta betekizunak irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoak izango dira, baina errege lege-dekretu honen 2. artikuluan 2. eta 3. apartuetan aurreikusitakoa bete beharko da betiere.

2. artikulua. *Jarduera eragoztearen edo mugatzearen ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak.*

1. Arlo sanitarioko murrizketek eta euste-neurriek eragindako enpresek eta entitateek enplegu-erregulazioko espediente bat eskatu ahal izango dute, jarduteko eragozpen edo mugengatik, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan jasotako baldintzetan, 2021eko ekainaren 1etik 2021eko irailaren 30era arte, baldin eta hurrengo 2. apartatuan aurreikusitakoa aplikagarri ez bazaie.

Kasu horietan, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitakoak izango dira Gizarte Segurantzako kuotak salbuesteko prozedura eta betekizunak.

Jarduteko ezintasunean oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei, 2021eko ekainetik irailera bitartean, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikuluan araututako salbuespen-ehunekoak aplikatuko zaizkie Gizarte Segurantzako kuotetan.

Jarduerari jarritako mugetan oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei, 2021eko ekainetik irailera bitartean, 1.4 artikuluan aurreikusitako salbuespen-ehunekoak aplikatuko zaizkie Gizarte Segurantzako kuotetan.

2. Lan-agintaritzak aurreko apartatuan aipatzen diren ezinbesteko egoeretako bat gertatzen dela egiaztatu ondoren, dagokion ebazpen baieslearen bidez —esanbidez edo administrazio-isiltasun bidez—, ez da aldi baterako enplegu-erregulazioko beste espediente bat izapidetu beharko agintari eskudunek murrizketa sanitarioak malgutzearen ondorioz jarduteko ezintasuneko egoeratik mugatuta jarduteko egoerara igartzeko, edo alderantziz.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, dagozkion salbuespen-ehunekoak aplikatu beharko dira une bakoitzean, enpresa dagoen ezinbesteko egoeraren izaera eragozlearen edo mugatzailearen arabera.

3. Enpresek, baldin eta euren egoera aldatu bada 2. apartatuan azaldutako moduan, hauek jakinarazi beharko dizkiete espedientea onetsi duen lan-agintaritzari eta langileen legezko ordezkaritzari: zer egoera-aldaketa gertatu den, aldaketak ondorioak noiz sortuko dituen eta haren eraginpean zer zentro eta langile dauden.

Lan-agintaritzari egoera-aldaketa horren berri eman dioten enpresek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta erantzukizunpeko adierazpen hori nahikoa izango da dagozkion salbuespen-ehunekoak aplikatzeko, enpresa une bakoitzean dagoen ezinbesteko egoeraren izaera eragozlearen edo mugatzailearen arabera.

Lan-agintaritzak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari helaraziko dio jakinarazpen hori, Gizarte Segurantzaren kuoten ordainketan salbuespenak behar bezala aplikatzeari buruz zehazten diren kontrol-ekintzak egin ditzan.

4. 2. eta 3. apartatuetako aurreikuspenak kasu honetan ere aplikatuko dira: lan-agintaritzaren ebazpen baieslea —esanbidezkoa edo administrazio-isiltasunezkoa— urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan edo ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz ematen denean jardueran aritzeko modurik ez dagoen egoera batetik jardueran aritzeko eragozpenak dauden egoera batera pasatzean, edo alderantziz, Espainiako agintaritzak eskudunek erabakitako neurrien ondorioz.

3. artikulua. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriei buruzko irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren eduki osagarrien indarraldia luzatzea.*

1. Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie, 2021eko irailaren 30era arte, baldin eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren abiaraziak badira eta COVID-19ari lotutako arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan eta ekoizpenekoetan oinarrituta badaude.

Halaber, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.4 artikuluan jasotako aurreikuspenak aplikatu ahal izango zaie oraindik ere, 2021eko irailaren 30era arte, COVID-19ari lotutako arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolamendukoetan edo ekizpenekoetan oinarrituta dauden eta errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik abiarazi diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei.

2. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren dibidendu-banaketarekin lotutako mugak eta aurreikuspenak 2021eko irailaren 30era arte egongo dira indarrean arau honen aurretik edo arau hau betez baimendutako espediente guztietarako, baldin eta errege lege-dekretu honetan aurreikusitako salbuespenak aplikatzen bazaizkie.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren zerga-gardentasunarekin lotutako mugak eta aurreikuspenak 2021eko irailaren 30era arte egongo dira indarrean errege lege-dekretu honen aurretik edo berau betez baimendutako espediente guztietarako.

4. Enpleguaren babesa irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera aplikatuko da aurreko aldiei dagokienez eta arau honetan jasotako onuretatik eratortzen denari dagokionez, eta epeen arabera.

5. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen diren aparteko orduak, kontratazio berriak eta esternalizazioak egiteari buruzko mugak eta salbuespenak 2021eko irailaren 30era arte egongo dira indarrean, eta errege lege-dekretu honen arabera baimendutako espediente guztietan ere aplikatuko dira.

6. Apirilaren 12ko 3/2021 Legearen 2. eta 5. artikulua 2021eko irailaren 30era arte egongo dira indarrean (3/2021 Errege Lege Dekretua, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19aren ondorioak arintzeko).

4. artikulua. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuan langileak babesteko jasotako neurrien indarraldia luzatzea.*

1. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan arautzen diren langabeziagatiko babesaren arloko ezohiko neurriak 2021eko irailaren 30era arte aplikatuko dira, bai artikulua horrek aipatzen dituen aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden pertsonentzat, bai urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan eta errege lege-dekretu honetan aurreikusten diren enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean daudenentzat, berezitasun hauekin:

a) Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.7 artikulua indarrean jarraituko du, bertan aurreikusitako baldintzen eta epeen arabera.

b) Langabezia-prestazioa eskuratzeko eskabide kolektiboa irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztuta daukaten enpresek ez dute berriz aurkeztu beharko aurreko eskabidean ageri diren langileentzat.

2. Era berean, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.1 artikuluan bigarren paragrafoan eta 9. artikuluan arautzen diren langileak babesteko ezohiko neurriak 2021eko irailaren 30era arte aplikatuko dira; eta artikulua horietan 2021eko urtarrilaren 31 aipatzen denean, testua 2021eko irailaren 30az ari dela ulertu behar da.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan arautzen diren langileak babesteko ezohiko neurriak 2021eko irailaren 30era arte aplikatuko dira, bai artikulua horietan aipatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen

eraginpean dauden pertsonentzat, bai urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan eta errege dekretu honetan aurreikusten diren enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean daudenentzat.

II. TITULUA

Langile autonomoak babesteko neurriak

5. artikulua. *Salbuespena jarduera uzteagatik Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriak Indartzen eta Finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren babesean prestazio-modalitatereen bat jaso duten langile autonomoen aldeko kotizazioan.*

1. 2021eko ekainaren 1etik aurrera, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartuta dagoen langile autonomoak eskubidea izango du Gizarte Segurantza eta lanbide-heziketa direla-eta ordaindu behar dituen kotizazioetako salbuespenak izateko, baldin eta araubide horietan alta emanda badago eta maiatzaren 31n urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluan aurreikusten diren jarduera uzteagatiko prestazioetako bat jasotzen badu. Hauek izango dira salbuespenen ehunekoak:

- a) Ekaineko kotizazioen % 90.
- b) Uztailako kotizazioen % 75.
- c) Abuztuko kotizazioen % 50.
- d) Iraileko kotizazioen % 25.

Kotizazioan onura horiek aplikatu ahal izateko, langile autonomoek 2021eko irailaren 30era arte eutsi beharko diote altari Gizarte Segurantzako dagokion araubide berezian.

2. Salbuespena zehazteko, langile autonomoak jarduera uzteagatiko prestazioa jaso aurretik kotizatzen zuen kotizazio-oinarria izango da kotizazio-oinarria.

3. Jarduera uzteagatiko prestazioa edozein modalitatetan jasotzea bateraezina izango da manu honetan ezarritako kotizazio-salbuespenarekin.

4. Urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan jasotako jarduera uzteagatiko prestazioetarako eskubidea galduta manu honetako salbuespenak bidegabe lortuz gero, arazoa ofizioz berrikusiko du eskumena duen entitate edo organismoak.

5. Manu honetan xedatutakoa errege lege-dekretu honen 6. artikuluan aipatzen diren prestazioak ahitzen zaizkien langile autonomoei aplikatuko zaie, artikuluko horren 4. apartatuan aipatzen diren salbuespenak amaitzen direnetik 2021eko irailaren 30era arte.

6. artikulua. *Jarduera uzten dutenentzako aparteko prestazioa, COVID-19 birusaren hedapena gelditzeko asmoarekin agintaritzea eskudunak emandako ebazpenen ondorioz jarduera ekonomikoa aldi batez erabat etenda gelditzeak eragiten dien langile autonomoentzako.*

1. 2021eko ekainaren 1etik aurrera, agintari eskudunak COVID-19 birusaren hedapenari eusteko neurri gisa hartutako ebazpen baten ondorioz jarduera guztiak eten behar dituzten langile autonomoek, edo adierazitako data baino lehen hasitako jardueraren etenaldiari arrazoi berberengatik eusten dioteneak, eskubidea izango dute jarduera uzteagatiko aparteko prestazio ekonomikoa jasotzeko, manu honetan ezarritakoaren arabera, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian afiliatuta eta alta emanda egotea jarduera etetea erabakitzen duen

ebazpena eman baino hogeita hamar egun natural lehenago gutxienez, eta, nolahi ere, etetea 2021eko ekainaren 1a baino lehen dekretatu bada, hura hasi baino lehen.

b) Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, jarduera eten den datan baldintza hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak erabateko ondorioak izango ditu babeserako eskubidea eskuratzeko.

2. Prestazioaren zenbatekoa egindako jardueragatik dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 70 izango da.

Hala ere, etxebizitza bateko familia-unitatean edo antzeko bizikidetz-unitatean lehen gradura arteko ahaideak (odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) elkarrekin bizi badira eta bi kidek edo gehiagok aparteko prestazioa jaso ahal badute jarduera uzteagatik, prestazio bakoitzaren zenbatekoa gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 40 izango da.

3. Prestazioa jasotzeko eskubidea agintaritza eskudunak jarduera itxiarazten duen neurria hartu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da, edo 2021eko ekainaren 1etik aurrera, jarduera data horren aurretik eten bada eta eteteari eusten bazaio.

4. Jarduera etenda dagoen bitartean, dagokion araubide bereziko altari eutsiko zaio, eta kotizatze betebeharretik salbuetsita geratuko da langile autonomoa. Kuotak ordaintzetik salbuetsita egongo da jarduera ixteko neurria hartzen den hilaren lehen egunetik, edo 2021eko ekainaren 1etik, jarduera data horren aurretik eten bada eta eteteari eusten bazaio, neurri hori kendu eta hurrengo hilaren azken egunera arte, edo 2021eko irailaren 30era arte, irailaren 30a beste data hori baino lehenagokoa bada.

Langile autonomoa kotizatze betebeharretik salbuetsita dagoen aldia kotizatutzat hartuko da, eta hari dagozkion kotizazioak beren aurrekontuen kargura prestazioa estaltzen duten entitateek ordainduko dituzte.

Aparteko prestazio hau jasotzen den bitartean, kotizazio-oinarria prestazioa ematen hasten denean ezarritakoa izango da.

Jarduera uzteagatik ematen den aparteko prestazioa jasotzen duen langilearen kotizazioetan aplika daitezkeen kenkarien gehieneko iraupena eta haiek aplikatzeko gainerako baldintzak ez dira aldatuko aparteko prestazioa jasotzeagatik.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, azken horrek ezartzen dituen prozeduren bidez, apartatu honetan ezarritakoa aplikatzeko, bai prestazioa behin-behinean onartzeko unean, bai ondorengo berrikuspenean, 9. apartatuan ezarritakoaren arabera.

5. Prestazioa jasotzea bateraezina izango da besteren konturako lan bat egiteagatik ordainsari bat jasotzearekin —baldin eta besteren konturako lanaren diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa baino 1,25 aldiz txikiagoak ez badira—, norberaren konturako beste jarduera bat egitearekin, itxierak jarduera ukitu dion sozietatetik datozen etekinak jasotzearekin, bai eta Gizarte Segurantzako prestazio bat jasotzearekin ere, alde batera utzita onuradunak egiten zuen jarduerarekin bateragarria zelako jasotzen duena.

Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartutako norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da, gainera, flota gerarazteagatik ematen diren laguntzekin.

6. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hori jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta erabaki badute norberaren konturako langileen araubide berezian sartzea eta artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

7. Prestazio hau Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dute.

8. Prestazio berri honek gehienez lau hilabeteko iraupena izango du, eta neurriak kentzea erabakitzen den hilabeteko azken egunean amaituko da jasotzeko eskubidea, edo 2021eko irailaren 30ean, irailaren 30a data hori baino lehenagokoa bada.

Prestazioa jasotzen emandako denborak ez ditu laburtuko jarduera eteteagatik onuradunak etorkizunean jaso ditzakeen prestazioen aldiak.

9. Artikulu honetan araututako prestazioa jarduera ixteko erabakia edo ebazpena indarrean jarri ondorengo lehen hogeita bat egun naturalen barruan eskatu beharko da, edo ekainaren 21a baino lehen, jarduera etetea 2021eko ekainaren 1a baino lehen erabaki bada eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako aparteko prestazioa jasotzen ari ez bada.

Eskabidea epez kanpo aurkezten bada, eskaera egiten den hilaren hurrengo hileko lehen egunean hasiko da prestazioa jasotzeko eskubidea. Kasu horietan, langileak ez du kotizatu beharrik izango prestazioa jasotzeko eskubidea duen egunetik aurrera.

Prestazioa kudeatzen duten entitateek dagokien behin-behineko ebazpena emango dute, eta eskubidea baietsi edo ezetsiko dute, aurkeztutako eskabidearen eta, halakorik badago, dokumentuen arabera. Jarduera ixteko neurria amaitutakoan, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira. Interesdunak prestazioa jasotzeko eskubiderik ez duela ondorioztatzen bada, bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko izapideak hasiko dira, eta, kasu horietan, gainera, prestazioa bidegabe jaso den aldi osoari dagozkion kotizazioak ere ordaindu beharko dira, eta, horretarako, Gizarte Segurantzaren sistemako diru-bilketa kudeatzeko prozedura osorik aplikatuko da.

10. Prestazioa eskatzean, interesdunak mutualitateari edo prestazioa kudeatzen duen entitateari jakinarazi beharko dio familia-unitateari zer kidek osatzen duten eta horietakoren batek jarduera uzteagatik prestazioa jasotzen duen edo jaso dezakeen edo bestelako diru-sarrerarik duen. Gainera, eskabidean adierazi behar da familia-unitateko kide guztiak baimena ematen dutela beren zerga-informazioa ikusten uzteko.

Eskabidea izapidetzea onartuko bada, besteren konturako lanaren ondorioz jasotzen dituzten diru-sarreraren zinpeko aitorpena aurkeztu behar du interesdunak, halako diru-sarrerarik badago, eta, horrez gain, Gizarte Segurantzako Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei baimena eman beharko die prestazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren egiazta dezaten behar diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari. Nolanahi ere, prestazioa jasotzen duenak enpresa-ziurtagiria eta errenta-aitorpena aurkeztu beharko dizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

7. artikulua. *Norberaren konturako jarduerarekin bateragarria den jarduera uzteagatik prestazioa.*

1. 2021eko ekainaren 1etik aurrera, langile autonomoek, baldin eta 2021eko maiatzaren 31n jasotzen bazuten beren konturako lanarekin bateragarria den jarduera uzteagatik prestazioa, urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan arautua, eta ez bazaizkie amaitu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 338.1 artikuluan aurreikusitako prestazio-aldiak (testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), 2021eko irailaren 30era arte jaso ahal izango dute prestazio hori, baldin eta manu honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan.

Langile autonomoek, era berean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 327. artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatik prestazioa eskatu ahal izango dute, baldin eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 330.1 artikuluko a), b), d) eta e) letretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta artikulua honetan jasotako baldintzak betetzen badituzte. Prestazio hori jasotzeko eskubidea 2021eko irailaren 30ean amaituko da.

2. Prestazioa eskuratu ahal izateko, egiaztatu beharko da norberaren konturako jardueraren bidez 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan lortutako diru-sarrerak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, 2019ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan lortutakoak baino % 50 baino gutxiago direla, eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan lortutako etekin garbiak, zergetarako kontuan eduki beharrekoak, ez direla 7.980 eurotik gorakoak izan.

Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, 2019ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan alta emanda egindako aldia hartuko da kontuan, eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoekin alderatuko da.

Beren ardurapean langile bat edo gehiago dituzten langile autonomoei dagokienez, prestazioa eskatzean egiaztatu beharko da beren gain hartutako laneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak betetzen dituztela. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo dute langile autonomoek, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo entitate kudeatzaileak eskatu ahal izango diete alderdi hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

3. 2021eko maiatzaren 31n urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluko prestazioa jasotzen ari denak ezin izango du sortu prestazio hori jasotzeko eskubidea, egun horretan Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 338.1 artikuluan aurreikusitako aldi osoa kontsumitu badu.

4. Prestazioa behin-behinean aitortuko dute mutualitate laguntzaileek edo Itsasoko Gizarte Institutuak, 2021eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, ekainaren lehen hogeita bat egun naturalen barruan eskatzen bada, edo, bestela, eskabidea egin eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrerako ondorioekin, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera erregularizatu beharko da.

Eskabidea izapidetzea onartu ahal izateko, Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei baimena emango zaie prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu dezaten beharrezkoak diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari.

5. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak 2022ko apirilaren 1etik aurrera eskatuko dizkiote dagokien zerga-administrazioari 2021eko ekitaldiko zerga-datuak.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egunean:

1.a BEZ balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioaren 303 ereduaren kopia, 2019ko eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetako aitortzei dagokiena.

130 ereduaren kopia, 2019ko eta 2021eko lehen, bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetako PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuko autolikidazioari dagokiona.

2.a Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) zenbatespen objektiboaren arabera (131 eredu) ordaintzen duten langile autonomoek beharrezkoa den dokumentazioa edo beste edozein frogabide aurkeztu beharko dute manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko.

Hala ere, eta 2019ko bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetan izandako norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergetan kontuan hartu beharreko diru-sarrerak % 50 baino gehiago murriztu direla egiaztatze aldera, zergak zenbatespen objektiboaren bidez ordaintzen dituzten langile autonomoek murrizketa hori izan dutela iritziko zaio, baldin eta dagokion jarduera ekonomikoan afiliatuta eta Gizarte Segurantzako sisteman alta emanda dauden langileen eguneko batez besteko kopurua 2019ko bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetako dagokion eguneko batez bestekoa baino % 7,5 txikiagoa bada prestazioa jaso den aldia (jarduera ekonomikoa EJSNren lau digituren bidez adierazten da).

6. Prestazioa aitortzeko eskumena duen entitate laguntzaileak edo kudeatzaileak datuak egiaztatu ondoren, jasotako prestazioak erreklamatuko zaizkie manu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten langile autonomoei.

Erreklamazioa egiteko eskumena duen entitateak zehaztuko du zer egunetan ordaindu behar diren erreklamatuak zenbatekoak; interesik edo errekar gurik gabe ordaindu beharko dira betiere.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, ordaindu gabeko zorra erreklamatuko du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, barnean direla Gizarte Segurantzaren Bilketari buruzko Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekar gurak eta interesak (erregelamendu hori ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

7. Langile autonomoak, prestazioa jasotzen ari den bitartean, kotizazio guztiak ordaindu beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, indarrean dauden tasak dagokion kotizazio-oinarriari aplikatuta.

Mutualitate laguntzaileak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, jarduera uzteagatiko prestazioarekin batera, langile autonomoak inolako jarduerarik egingo ez balu ordaindu beharko lituzkeen gertakari arruntengatiko kotizazioen zenbatekoa ordainduko dio langileari, Segurtasunaren Lege Orokorraren testu bateginaren 329. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

8. 2021eko irailaren 30a baino lehen jarduera behin betiko uzten bada, jardueraren iraupenaren arabekoak izango dira artikulua honetan ezarritako betekizunen mugak. Ondorio horietarako, kalkulua egitean, osorik zenbatuko da dagokion Gizarte Segurantzako araubidean baja ematen zaion hilabetea.

9. Artikulu honetan araututako prestazioa ordaintzeko eskatu duen langile autonomoak honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Hari edozein unetan uko egin 2021eko abuztuaren 31 baino lehen; uko egiteak jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean izango ditu ondorioak.

b) Jarduera uzteagatiko prestazioa bere ekimenez itzuli, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen den mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon beharrik gabe, baldin eta uste badu 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako diru-sarrera garbiek, zergetarako kontuan hartu beharrekoek, 2. apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta horrekin prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

10. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, jarduera uzteagatiko prestazioa bateragarria izan daiteke besteren konturako lanarekin, eta kasu horretan baldintza hauek aplikatuko dira:

a) Norberaren konturako lanaren ondoriozko diru-sarrera garbiak, zergei begira kontuan hartu beharrekoak, eta besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak ezin izango dira lanbide arteko gutxieneko soldata baino 2,2 aldiz handiagoak. Zenbaketa hori zehaztean, besteren konturako lanetik datozen diru-sarrerak ez dira izango lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,25 baino gehiago.

b) Prestazioaren zenbatekoa jardueraren arabera dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 50 izango da.

c) Eskubidearekin batera, besteren konturako lanaren ondorioz jasotako diru-sarreraren zinpeko adierazpena aurkeztuko da, prestazioa kudeatzen duen entitateari enpresa-ziurtagiria eta errenta-aitorpena aurkezteko betebeharra alde batera utzi gabe.

d) Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta apartatu honetan xedatutakoaren kontra ez bada.

8. artikulua. *Jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa, jardunean ari diren, 2021eko maiatzaren 31n Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriak Indartzen eta Finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan aurreikusten diren jarduera uzteagatiko prestazioetako bat jasotzen ari diren eta errege lege-dekretu honen 7. artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatiko prestazio arrunta jasotzeko eskubiderik ez duten langile autonomoentzako.*

1. 2021eko maiatzaren 31n urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan aurreikusten diren jarduera uzteagatiko prestazioetako bat jasotzen ari diren eta jardunean ari diren langile autonomoek, baldin eta ezin badute aurreko artikuluan aurreikusitako jarduera uzteagatiko prestazio arrunterako eskubiderik sortu, artikulua honetan aurreikusitako jarduera uzteagatiko aparteko prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izango dute, 2021eko ekainaren 1etik aurrera, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Langile Autonomoen Araubide Bereziko edo Itsasoko Langileen Araubide Bereziko kotizazioen ordainketan norberaren konturako langile gisa alta emanda egotea eta haien ordainketa egunean edukitzea 2020ko apirilaren 1a baino lehen.

Hala ere, eskabidea aurkezten duen datan ez badu betetzen kotizazioen ordainketa egunean edukitzeko betekizuna, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan eskatuko dio organo kudeatzaileak langile autonomoari. Zorpekoa erregularizatzeak babeserako eskubidea eskuratzeko erabateko ondorioak izango ditu.

b) 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergei begira kontuan hartu beharreko etekin garbiak 6.650 eurotik gorakoak ez izatea.

c) 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergei begira kontuan hartu beharreko diru-sarrerak 2020ko lehen hiruhilekoan baino txikiagoak izan direla egiaztatzea.

Diru-sarreraren murrizketa kalkulatzeko, 2020ko lehen hiruhilekoan alta emanda egindako aldia hartuko da kontuan, eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan izandako diru-sarreraren zati proportzionalarekin alderatuko da, proportzio berean.

2. Egindako jardueratik dagokion gutxieneko kotizazio-oinarriaren % 50 adina izango da prestazioaren zenbatekoa.

Hala ere, etxebizitza bateko familia-unitatean edo antzeko unitatean lehen gradura arteko ahaideak (odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) elkarrekin bizi badira eta bi kidek edo gehiagok prestazio hau edo beste bat jaso ahal badute jarduera uzteagatik, % 40 izango da prestazio honen zenbatekoa.

3. Beren ardurapean langile bat edo gehiago dituzten langile autonomoei dagokienez, prestazioa eskatzean egiaztatu beharko da beren gain hartutako laneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak guztiak betetzen dituztela. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo dute, eta alderdi hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko eskatu ahal izango diete Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo entitate kudeatzaileak.

4. Jarduera uzteagatik aparteko prestazioa 2021eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin hasi ahal izango da sortzen, eta lau hilabeteko iraupena izango du gehienez, baldin eta eskabidea ekaineko lehenengo hogeita bat egun naturalen barruan aurkezten bada. Horrela egin ezean, eskabidea aurkezten den hilaren ondoko hileko lehen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak. Prestazio honek 2021eko irailaren 30era arte iraungo du gehienez.

5. Prestazioa jasotzea bateraezina izango da besteren konturako lan bat egiteagatik ordainsari bat jasotzearekin, norberaren konturako beste jarduera bat egitearekin, sozietate batetik datozen etekinak jasotzearekin, eta Gizarte Segurantzako prestazio bat jasotzearekin, onuradunak egiten zuen jarduerarekin bateragarria zelako jasotzen duena alde batera utzita.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik jasotzen den prestazioa bateraezina izango da flota gerarazteagatik ematen diren laguntzekin.

6. Langile autonomoak, prestazioa jasotzen ari den bitartean, alta emanda egon beharko du eta kotizazio guztiak ordaindu beharko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, indarrean dauden tasak dagokion kotizazio-oinarriari aplikatuta.

Mutualitate laguntzaileak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, jarduera uzteagatik prestazioarekin batera, langile autonomoak inolako jarduerarik egingo ez balu ordaindu beharko lituzkeen gertakari arruntengatik kotizazioen zenbatekoa ordainduko dio langile autonomoari, Seguratasunaren Lege Orokorraren testu bateginaren 329. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Aparteko prestazio hau jasotzen den bitartean, aplikatuko den kotizazio-oinarria prestazioa ematen hasten denean ezarritakoa izango da.

Mutualitate laguntzaileek eta Itsasoko Gizarte Institutuak apartatu honetan ezartzen dena betetzeko behar den informazioa emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarri, hark ezartzen dituen prozeduren bitartez, bai prestazioa behin-behinean onartzen denean, bai ondoren, berrikusten denean, artikuluko honen 8. eta 9. apartatueta ezartzen den bezala.

7. Prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da, baldin eta prestazioa jasotzen den bitartean baldintzak betetzen badira, arau honen 7. artikuluan jasotako jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzeko edo Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 327. artikuluan eta hurrengoetan araututako jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea sortzeko, hargatik eragotzi gabe interesdunak dagokion prestazioa eskatzeko duen eskubidea.

8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute, ezarritakoaren arabera, norberaren konturako langileen araubide berezian sartzea erabaki badute eta horretarako behar diren baldintzak betetzen badituzte.

9. Prestazio hau Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dute.

Prestazioa kudeatzen duten entitateek behin-behineko ebazpena emango dute, aurkeztutako eskabidearen arabera eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentuen arabera, eta eskubidea baietsi edo ezetsiko dute.

Eskabidea izapidetzea onartuko bada, besteren konturako lanaren ondorioz jasotzen diren diru-sarrerari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da, halako diru-sarrerarik badago, eta, horrez gain, baimena eman beharko die Gizarte Segurantzako Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei prestazioa jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren egiazta dezaten behar diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari. Nolanahi ere, prestazioa jasotzen duenak enpresa-ziurtagiria eta errenta-aitorpena aurkeztu beharko dizkio prestazioa kudeatzen duen entitateari.

10. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira.

a) Horretarako, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek 2020ko lehen hiruhilekoari eta 2021eko lehen hiru hiruhilekoei buruzko zerga-datuak eskatuko dizkiote dagokien zerga-administrazioari.

Gizarte Segurantzarekin edo Itsasoko Gizarte Institutuarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egunean:

1.a 2020. urteko BEZaren urteko laburpen-aitorpenaren 390 ereduaren kopia eta haren hiruhilekoko likidazioenak (303 ereduak), bai eta 2021. urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako likidazioenak ere (303 ereduak).

PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako 2020ko hiruhileko bakoitzaren autolikidazioaren kopia (130 ereduak), eta 2020. urteko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako autolikidazioenak. Pertsona fisikoen errentaren aitortpena edo besteren kontura jasotako ordainsarien berri ematen duen enpresa-ziurtagiria.

2.a Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) zenbatespen objektiboaren arabera (131 ereduak) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko.

Hala ere, eta norberaren konturako jardueraren ondoriozko eta zergei begira kontuan hartu beharreko diru-sarreraren murrizketa eta etekin garbieraren muga egiaztatze aldera, zergak zenbatespen objektiboaren bidez ordaintzen dituzten langile autonomoek murrizketa hori izan dutela iritziko zaio, baldin eta Gizarte Segurantzako sistemari afiliatuta eta alta emanda dagokion jarduera ekonomikoan dauden langileen eguneko batez besteko kopurua 2019ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagokien eguneko batez bestekoa baino % 7,5 txikiagoa bada prestazioa jaso den aldirian zehar (jarduera ekonomikoa lau digituren bidez adierazten da (EJSN)).

b) Ondorioztatzen bada interesdunak ez duela eskubiderik prestazioa jasotzeko, izapideak hasiko dira jaso behar ez zituen zenbatekoak erreklamatzeko.

Horretarako, prestazioa aitortzeko eskumena duen entitateak ebazpen bat emango du, itzuli beharreko diru kopuruaren zenbatekoa zehazten duena. Diru kopuru hori interesik edo errekar gurik gabe itzuli beharko da ebazpenean zehaztutako epean.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ordaintzeko dagoen zorra erreklamatu du, barnean direla Gizarte Segurantzaren Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekar guak eta interesak.

11. Prestazioa eskatzean, interesdunak mutualitateari edo prestazioa kudeatzen duen entitateari jakinarazi beharko dio familia-unitatea nork osatzen duten eta haietakoren batek jarduera uzteagatik prestazioa jasotzen duen edo jaso dezakeen edo bestelako diru-sarrerarik duten.

12. Artikulu honetan araututako prestazioa ordaintzeko eskatu duen langile autonomoak honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Hari edozein unetan uko egin 2021eko abuztuaren 31 baino lehen; uko egiteak jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean izango ditu ondorioak.

b) Jarduera uzteagatik prestazioa bere ekimenez itzuli, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen den mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon beharrik gabe, baldin eta uste badu 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoan jasotako diru-sarrerak edo aldi horretan fakturazioan izan den beherakadak 1. apartatuan ezarritako atalaseak gaudituko dituztela eta ondorioz prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

9. artikulua. *Jarduera uzten duten sasoikako langileentzako aparteko prestazioa.*

1. Manu honen ondorioetarako, hauek hartuko dira sasoiko langiletzat: 2018. eta 2019. urteetan urte bakoitzean gutxienez lau hilabetez eta gehienez zazpi hilabetez Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian baino lan egin ez duten langile autonomoak.

Langile autonomoak 2018an eta 2019an lan bakarria egin duela iritziko zaio, baldin eta, gizarte-segurantzako erregimen batean besteren konturako langile gisa alta emanda egon bada ere, alta horrek urte horietan ehun eta hogeitun egun gaintitzen ez baditu.

2. Prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian alta emanda eta kotizatzen egotea norberaren konturako langile gisa, gutxienez lau hilabetez eta gehienez zazpi hilabetez, 2018ko eta 2019ko urte bakoitzean; denbora-esparru horrek gutxienez bi hilabete hartu behar ditu urte horietako ekainetik irailera bitartean.

b) Dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean besteren konturako langile gisa alta emanda edo altaren pareko egoeran ez egotea hirurogei egun baino gehiago 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan.

c) 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan lortutako eta zergei begira kontuan hartu beharreko diru-sarrera garbiak 6.650 eurotik gora ez izatea.

d) Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeak babeserako eskubidea eskuratzeko erabateko ondorioak izango ditu.

3. Artikulu honetan araututako prestazioaren zenbatekoa hau izango da: Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian egindako jardueragatik dagokion gutxienezko kotizazio-oinarriaren % 70.

4. Artikulu honetan arautzen diren jarduera uzteagatik aparteko prestazioak 2021eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin hasi ahal izango dira sortzen, eta lau hilabeteko

iraupena izango dute gehienez, baldin eta eskabidea ekaineko lehenengo hogeita bat egun naturalen barruan aurkezten bada. Bestela, eskabidea aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean hasiko dira ondorioak, eta gehienez 2021eko irailaren 30era arte iraungo dute.

5. Prestazioa jasotzen den bitartean, ez dago kotizatzeko betebeharririk, eta langilea alta emanda edo horren pareko egoeran egongo da Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean.

6. Kotizatzeko betebeharririk ez duten kotizazioak dena delako prestazioa beren aurrekontuen kargura estaltzen duten entitateek hartuko dituzte beren gain.

7. Prestazio hori bateraezina izango da besteren konturako lanarekin eta onuraduna jasotzen ari den Gizarte Segurantzako edozein prestaziorekin, salbu eta norberaren konturako langile gisa jardutearekin bateragarria dena. Era berean, bateraezina izango da norberaren konturako lanarekin eta itxierak jarduera ukitu dion sozietatearen etekinak jasotzearekin, baldin eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan jasotako diru-sarrerak 6.650 euro baino gehiago badira.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartutako norberaren konturako langileei dagokienez, jarduera uzteagatik prestazioa bateraezina izango da, halaber, flota geldiarazteagatik laguntzak jasotzearekin.

8. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek ere aparteko prestazio hau jasotzeko eskubidea izango dute, baldintza berekin, behar den araubide berezian norberaren konturako langile gisa sartzearabaki badute eta artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

9. Prestazio hori Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dute.

Eskabidea izapidetzea onartu ahal izateko, Gizarte Segurantzaren Administrazioari eta prestazioa kudeatzeaz arduratzen diren mutualitate laguntzaileei baimena emango zaie prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzen ote diren egiazta dezaten beharrezkoak diren zerga-datuak eskatzeko dagokion zerga-administrazioari.

10. Artikulu honetan araututako prestazioa edozein unetan eskatu ahal izango da araua indarrean jartzen denetik 2021eko abuztura bitartean.

Eskabidearen ondorioak 4. apartatuan zehaztutakoak dira.

Entitate kudeatzaileek behin-behineko ebazpena emango dute, eta eskubidea baietsi edo ezetsiko dute aurkeztutako eskabidearen eta, halakorik badago, dokumentuen arabera.

11. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, emandako behin-behineko ebazpen guztiak berrikusiko dira.

a) Horretarako, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek edo Itsasoko Gizarte Institutuak 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako zerga-datuak eskatuko dizkiote dagokien zerga-administrazioari.

Gizarte Segurantzarekin edo Itsasoko Gizarte Institutuarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateek ezin badituzte eskuratu zerga-administrazioetako datuak, langile autonomoek hauek aurkeztu beharko dizkiote mutualitate laguntzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo hamar egunean:

1.a 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako 303 aitorten-ereduaren kopia. 130 ereduaren kopia, 2021eko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako PFEZ pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatuko autolikidazioari dagokiona.

2.a Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) zenbatespen objektiboaren arabera (131 eredu) ordaintzen duten langile autonomoek behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute manu honetan eskatzen diren diru-sarrerak egiaztatzeko.

b) Ondorioztatzen bada interesdunak ez duela eskubiderik prestazioa jasotzeko, izapideak hasiko dira jaso behar ez zituen zenbatekoak erreklamatzeko.

Horretarako, prestazioa aitortzeko eskumena duen entitateak ebazpen bat emango du, itzuli beharreko diru kopuruaren zenbatekoa zehazten duena. Diru kopuru hori interesik edo errekaragurik gabe itzuli beharko da, ebazpenean zehaztutako epean.

Horretarako ematen den ebazpenean ezarritako epea igarotakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ordaintzeko dagoen zorra erreklamatu du, barnean direla Gizarte Segurantzaren Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako diru-bilketako administrazio-prozeduraren arabera dagozkion errekaraguak eta interesak.

12. Artikulu honetan arautzen den prestazioa ordaintzeko eskatzen duen sasoikako langile autonomoak aukera hauek ditu:

a) Hari edozein unetan uko egitea 2021eko abuztuaren 30a baino lehen; uko egiteak jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetean izango ditu ondorioak.

b) Jarduera uzteagatik prestazioa bere ekimenez itzultzea, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen den mutualitatearen edo entitate kudeatzailearen erreklamazioaren zain egon beharrik gabe, baldin eta uste badu horretarako eskubidea sortzen duen aldian jasoko dituen diru-sarrerek 2.c) apartatuan ezarritako atalaseak gaindituko dituztela eta horrekin prestazioa jasotzeko eskubidea galduko duela.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jarduera lehengoratzeko tasa txikia duten sektoreetako enpresak.*

1. Estaldura-tasa handia eta jarduera lehengoratzeko tasa txikia duten sektoreetako enpresatza hartuko dira 2021eko irailaren 30era arte automatikoki luzatutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak dituzten enpresak, 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta haien jarduera arau honen eranskinean aurreikusten diren EJSN-09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako koderen batean sailkatzen bada araua indarrean jartzeko unean.

2. Enpresa hauek salbuetsita geratuko dira, 2021eko ekainaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean, Gizarte Segurantzako kotizaziorako enpresa-ekarpena eta baterako diru-bilketaren kuota ordaintzetik, hurrengo apartatuan adierazten diren ehuneko eta baldintzetan:

a) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta eta indarrean dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente 1. artikuluan ezarritakoaren arabera automatikoki luzatzen zaien enpresak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen estaldura-tasa handia eta jarduera lehengoratzeko tasa txikia duten sektoreetakoak jotzen badira 1. apartatuaren arabera, eta haien jarduera arau honen eranskinean aurreikusten diren EJSN-09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako kodeetako batean sailkatzen bada araua indarrean jartzeko unean.

b) Aurreko a) letran aipatutako enpresak, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluko kausetan oinarrituta dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente ezinbesteko batetik ekonomia-, teknika-, antolaketa- edo ekoizpen-arrazoietan oinarritutako batera aldatzen badira 2021eko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

c) Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 3. apartatuko b) eta c) letretan aipatutako enpresak, eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuko b) letran aipatutakoak, baldin eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten titular badira martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan oinarrituta, xedapen gehigarri horietan araututako salbuespenetarako eskubidea izan badute, eta duten jarduera arau honen eranskinean aurreikusten diren EJSN-09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako kodeetako batean sailkatzen bada araua indarrean jartzeko unean.

d) Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta eta indarrean dagoen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente 1. artikuluan

ezarritakoaren arabera automatikoki luzatzen zaien enpresak, baldin eta haien negozioa aurreko letretan aipatutako enpresen mende badago zeharka eta gehienbat, edo haien balio-katearen parte badira.

Horri dagokionez, aurreko letretan aipatzen diren enpresen balio-katearen parte, edo zeharka haien mendean daudenak, irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera izaera hori aitortu zaienak dira.

Era berean, enpresak salbuetsita geldituko dira, xedapen gehigarri honetan ezarritako eran, baldin eta, mendekotzat edo balio-katearen partetzat hartuta egonik, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan oinarrituta dagoen ezinbesteko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batetik ekonomia-, teknika-, antolaketa- edo ekoizpen-arrazoietan oinarritutako batera aldatu badira irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 3.d) apartatuan edo urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren 2.d) apartatuan ezarritakoaren arabera eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan edo errege lege-dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, edo 2021eko ekainaren 1etik irailaren 30era arteko aldi aldutzen ari badira irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan edo errege lege-dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Aurreko apartatuan adierazitako enpresak salbuetsita geldituko dira aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eragiten dien langileei dagokienez, baldin eta langile horiek 2021eko ekainaren 1etik aurrera jarduerari berriz ekiten badiote, edo jarduerari berriz ekin badiote enpleguaren aldeko gizarte-neurriei buruzko maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenetik eta haren 4.2.a artikulua arabera. 2021eko ekainaren 1etik aurrera lan egindako lanaldiei eta lanaldi-ehunekoei dagokienez geldituko dira salbuetsita, ondoren adierazitako ehuneko eta baldintzetan:

a) 2021eko ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean sortutako enpresa-ekarpenaren % 95, enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen parekoak baino gutxiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) 2021eko ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean sortutako enpresa-ekarpenaren % 85, enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen parekoak edo gehiago izan baditu alta emanda.

4. 2. apartatuan adierazitako enpresak ehuneko eta baldintza hauetan salbuetsita geldituko dira, 2021eko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean beren jarduerak etenda dauzkaten langileei dagokienez eta etenaldiak eragindako lanaldi eta lanaldi-ehunekoei dagokienez:

a) 2021eko ekainean, uztailean eta abuztuan sortutako enpresa-ekarpenaren % 85, eta 2021eko irailean sortutakoaren % 70, hurrenez hurren, enpresak 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen parekoak baino gutxiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

b) 2021eko ekainean, uztailean eta abuztuan sortutako enpresa-ekarpenaren % 75, eta 2021eko irailean sortutakoaren % 60, hurrenez hurren, 2020ko otsailaren 29an berrogeita hamar langile edo langileen parekoak edo gehiago izan baditu Gizarte Segurantzaren alta emanda.

5. Xedapen gehigarri honetan araututako salbuespenak ez dira bateragarriak izango errege lege-dekretu honen 1. eta 2. artikuluetan araututako neurriekin. Era berean, enpresa horiei irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.3, 4. eta 6. artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

6. Aurreikusitako salbuespenak honako hauei dagokienez aplikatuko dira: jarduerak etenda dauzkaten langileak, eteteak eragiten dien lanaldiak eta lanaldi-ehunekoak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresa-ekarpenaren ordainketa, eta baterako bilketaren kontzeptuengatiko kuota.

7. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, enpresaren jarduera sailkatzen duen EJSN-09ren kodea lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kontingentziak estaltzeko kotizazio-tasak zehazteko aplikatzen dena da, 2020ko irailean aurkeztutako kuoten likidazioetako, Estatuaren 2007. urteko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria. *Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea.*

1. Hauek osatuko dute Laneko Hiruko Jarraipen Batzordea: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak, Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioak (CEOE), Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioak (CEPYME), Langile Komizioek (CCOO) eta Langileen Batasun Orokorrak (UGT). Eta, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, eginkizun hauek izango ditu: hemen jasotako neurriak eta ekonomia-jardueraren eta enpleguaren bilakaera ebaluatzea, bai eta enplegua eta ekoizpen-ehuna babesteko etorkizunean hartzen diren neurriak aztertzea ere.

2. Eginkizun horiek betetzeko, hamabost egunean behin ohiko bilerak egingo ditu batzordeak arau hau indarrean jartzen denez geroztik, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak horretarako deialdia egin ondoren; eta ezohiko bilerak egingo ditu, berriz, batzordea osatzen duten lau antolakundeetatik hiruk eskatzen dutenean.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Benetan lanean hastea eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak aplikatzea aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen edo data jakinetan errepikatzen diren aldizkako lan finkoak egiten dituztenei.*

1. Enpresek benetan hartu beharko dituzte aldizkako kontratu finkoa duten pertsonak eta egun jakinetan aldizkako lan finkoak egiten dituzten pertsonak deialdiaren garai teorikoan; deialdiaren garai teorikotzat hartuko da horietako bakoitzak 2019ko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean benetan egindako lanari dagokiona.

Langilea 2019ko irailaren 30a baino geroago kontratatu badute, 2020ko ekitaldiari dagokion deialdiaren garai teoriko bera hartuko da erreferentziazat.

2. Aurreko apartatuan aipatutako pertsonen, baldin eta osasunaren arloko murrizketen eta euste-neurrien ondorioz ezin badute benetako jarduerarik egin aipatutako deialdiaren garaian, arau hau indarrean jartzean indarrean dauden aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean egon beharko dute une horretan, edo arau hau indarrean jarri ondoren baimendutakoen eraginpean, eta egoera horretan egon beharko dute berriro lanean benetan hasi arte edo, hala badagokio, beren jarduera eten arte, 1. apartatuan adierazitako aldiaren barruan.

Enpresek hamabost eguneko epea izango dute, pertsona horiek espedientearen eraginpean gelditzen direnetik aurrera zenbatzen hasita, lan-agintaritzari aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen sar ditzala eskatzeko, aldeztetik eskatu ez bada, eta entitate kudeatzailean langabezia-prestazioen eskaera kolektiboa izapidetzeko.

3. Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan araututako aparteko prestazioa, zeinak indarrean jarraitzen baitu errege lege-dekretu honen 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aplikagarria izango da deialdiaren garai teorikoa ekainaren 1aren eta irailaren 30aren artean ez dagoenean eta behin hura amaituta, eta jardueraren etenaldi arruntetan ere bai, benetan laneratuz gero, bai eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua adierazitako langileei eragiten dieten eta xedapen gehigarri honetan araututa ez dauden gainerako egoeretan ere.

Laugarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzarako kotizazioaren salbuespenen eraginak.*

1. Errege lege-dekretu honen 1., 2. eta 5. artikuluetan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen diren Gizarte Segurantzako kotizazioaren salbuespenek ez dute eraginik izango langileetan; alegia, salbuespena aplikatzen den aldia benetan

kotizatutakotzat hartuko da ondorio guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 20. artikulua 1. eta 3. apartatueta ezarritakoa.

2. Aurreko apartatuko aurreikuspena, orobat, xedapen hauetan ezartzen diren Gizarte Segurantzako kotizazioko salbuespenei dagokienez aplikatuko da, xedapenok indarrean jartzen direnetik aurrera: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 24. artikulua (COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien 8/2020 Errege Lege Dekretua), maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua (Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien 18/2020 Errege Lege Dekretua), ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren 4., 8. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria (Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurrien eta industria-sektorearen lehiakortasunaren 24/2020 Errege Lege Dekretua), irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria (Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien 30/2020 Errege Lege Dekretua), abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikulua (Turismoaren sektorea, ostalaritza eta merkataritza laguntzeko eta zerga-arloko premiazko neurrien 35/2020 Errege Lege Dekretua) eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 1. eta 2. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria (Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriak Indartzen eta Finkatzen dituen 2/2021 Errege Lege Dekretua).

Bosgarren xedapen gehigarria. *Unibertsitateek irakasle elkartuen kontratuak berritzea 2021-2022ko ikasturterako.*

Unibertsitateetan irakasle elkartuak kontratatzeko, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 53. artikuluan ezarritako arauak bete beharko dira.

Kontratu horiek, hala ere, kontratatutako pertsonak unibertsitateko esparru akademikotik kanpoko lanbide-jarduera bat duela egiaztatu behar izan gabe berritu ahal izango dira, salbuespen gisa, justifikatutako arrazoiengatik eta 2021-2022ko ikasturtera mugatuta.

Seigarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua indarraldia luzatzea.*

Luzatu egiten da, 2021eko irailaren 30era arte, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua indarraldia; artikulua horrek Mecuida plana arautzen du.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera lehengoratzeko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordea.*

Gizarte Segurantzaren eremuan langile autonomoen jarduera lehengoratzeko laguntza-neurrien Jarraipen Batzordearen esku uzten da arau honen 5., 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan eta bigarren xedapen iragankorrean ezarritako neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea. Batzorde hori ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean sortu da.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluen babesean egin diren edo aldeko ebazpena jaso duten prestazio- edo sorospen-eskaerak.*

1. Errege lege-dekretu honekin bat etorri ebatziko dira Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren babesean egindako prestazio- eta sorospen-eskaerak, errege lege-dekretua indarrean jartzen denean oraindik ebatzi gabe badaude.

2. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denerako eskaerek aldeko ebazpena jasoan badute eta prestazioa edo sorospena ahitu ez bada, ofizios onartuko da haren iraupena luzatzea, errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

3. Onuradunek beste eskabide bat aurkez dezakete, beren eskubidea aitor diezaieten errege lege-dekretu honetan aurreikusitako aldirako, baldin eta berau indarrean jartzen den egunerako ukatu badizkiete edo ahitu bazaizkie maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan edo azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluen babesean aitortutako prestazioak edo sorospenak (maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartu ziren).

Bigarren xedapen iragankorra. *Jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriak Indartzen eta Finkatzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan edo bigarren xedapen iragankorrean jasotako prestazioa 2021eko maiatzaren 31n jasotzen ari ziren eta jarduera osoa aldi baterako eten zaien langile autonomoentzako.*

Langile autonomoek, baldin eta, 2021eko maiatzaren 31n, jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa jasotzen ari badira jarduera osoa aldi baterako eten zaielako agintari eskudunek COVID-19 birusaren hedapenari eusteko neurri gisa eta urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluan eta bigarren xedapen iragankorrean jasotako neurri gisa emandako ebazpenaren ondorioz, errege lege-dekretu honen 6. artikuluan aurreikusitako prestazioa jaso ahal izango dute jarduera etenda daukaten aldian, harik eta neurriak kentzea erabakitzen duten hilabetearen ondorengo hileko azken egunera arte edo 2021eko irailaren 30era arte, azken data hori lehenagokoa bada.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Hazkundera eta Enplegua Hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legea aldatzea.*

Hazkundera eta Enplegua Hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen 2. artikuluari 4 quater apartatua gehitu zaio, eta honela dio:

«4 quater. Mugako adimen-gaitasuna duten pertsonei kontratu mugagabea egiten dieten enplegatzaileek, kontratua egiten denetik aurrera, hobari baterako eskubidea izango dute, lau urtez, Gizarte Segurantzarako enpresa-kuotan (edo horren baliokide den eguneko kuotan): 125 euro hilean kontratatutako langileko (1.500 euro urtean).

Mugako adimen-gaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira Gobernuak erregelamendu bidez xedatzen dituenak».

Azken xedapenetako bigarrena. *Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen azaroaren 3ko 32/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

32/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 3koa, Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituen, aldatu eta honela gelditzen da:

Bat. 2. artikulua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

«1. Salbuespen gisa, eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, langabezia-prestazio ekonomikoak ohiz kanpo jasotzeko eskubidea duten ikuskizun publikoetako artistek halakoak jasotzen jarraitu ahal izango dute 2021eko irailaren 30era arte, betiere 17/2020 Errege Lege-dekretuaren 2. artikuluan ezartzen den bezala (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira).

2. Prestazioa bateraezina izango da norberaren konturako edo besteren konturako jarduerak egitearekin, eta beste edozein prestazio, gutxieneko errenta, inklusio-errenta, gizarte-soldata eta edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzak jasotzearekin.

Prestazioa jasotzeko eskubidea aitortu ondoren, eten egingo da eskubidea titularrak bere kontura edo besteren kontura lan egiten duen bitartean. Eskubide hori eteten bada, eten egingo da prestazioaren ordainketa, eta, behin lana amaituta, prestazioa jasotzeko geratzen den denboraz hasiko da berrito, 2021eko irailaren 30era arte gehienez.

3. Nolanahi ere, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, prestazioaren iraupenari buruzkoa izan ezik, hori 1. apartatuan adierazitako egunera arte luzatuko baita.

4. Era berean, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aitortutako langabezia-prestazio ekonomikoak ohiz kanpoko bidetik jasotzeko eskubidea izango dute horretara aurretik jo ez duten langileek, baldin eta egiaztatzen badute 2020ko ekainaren 11tik 2021eko maiatzaren 31ra arteko aldiaren Gizarte Segurantzaren bost egun alta emanda egon direla eta 1. apartatuan aurreikusitako jarduerako zerbitzuak eman dituztela benetan egun horietan. Langile horiei legezko langabezia-egoeran daudela eta gutxieneko kotizazio-aldia betea dutela aitortuko zaie 2021eko ekitaldian, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 266. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, baldin eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 262. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ohiko kotizaziopeko langabezia-prestazioa jasotzen ari ez badira edo prestazio hori aukeratu ez badute.

Langabezia-prestazioak 2021eko irailaren 30era arte iraungo du.

Apartatu honetan aurreikusi ez diren alderdietan, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa beteko da».

Bi. Aldatu egiten dira 3. artikuluen 1. apartatuaren e) letra eta 4. apartatua. Honela idatzita geratzen dira:

«e) 2019ko abuztuaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra arte, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean gutxienez hogeita hamabost eguneko okupazio-aldi kotizatu bat egiaztatzea, aurreko eskubide bat aitortzeko zenbatu ez dena; gainera, beharrezkoa izango da aldi horretan besteren konturako teknikari edo laguntzaile gisa lan egin izana kode hauetan jasotako jardueretako batean sartuta dauden kultura-sektoreko enpresentzat: EJSN 5912, 5915, 5916 edo 5920 kodeak, edo 9001 eta 9004 bitarteko kodeetako bat».

«4. Salbuespenezko sorospena 2021eko irailaren 30ean azkenduko da, eta behin baino ezin izango da jaso».

Hiru. Aldatu egiten da 4. artikuluen 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Artikulu honetan araututako langabezia-prestaziorako eskubidea 2021eko irailaren 30ean azkenduko da, ordura arte erabili diren eskubide-egunak alde batera utzita.

Azken hurren ez dakar kotizaziopeko langabezia-prestazioa agortzea, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean araututako langabezia-sorospenak eskuratzearen ondorioetarako».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 7. eta 17. puntuetan xedatzen denaren babesean ematen da; horiek eskumen eskusiboak ematen dizkiote Estatuari lan-arloko legediaren gainean eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legediaren eta araubide ekonomikoaren gainean.

Azken xedapenetako laugarrena. *Araua emateko gaikuntza.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Salbuespen gisa, azken xedapenetako lehenengoa 2021eko ekainaren 1ean jarriko da indarrean.

Madriren, 2021eko maiatzaren 27an

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

EJSN-09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren kodeak, errege lege-dekretu honen lehen xedapen gehigarrian xedatutako neurrien enpresa onuradunenak

710	Burdin meak ateratzea.
1419	Beste janzki eta osagai batzuk egitea.
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk.
1820	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa.
2051	Lehergaien fabrikazioa.
2441	Metal preziatuen ekoizpena.
3212	Bitxien eta antzeko artikuluen fabrikazioa.
3213	Imitaziozko bitxigintzako eta antzeko salgaien fabrikazioa.
3316	Aireontzien eta espazio-ontzien konponketa eta mantentzea.
4624	Larruen handizkako merkataritza.
4634	Edarien handizkako merkataritza.
4637	Kafearen, tearen, kakaoaren eta espezien handizkako merkataritza.
4932	Taxi-garraioa.
4939	Beste inon sailkatu gabeko lehorreko garraio motak.
5010	Bidaiarien itsas garraioa (2).
5030	Bidaiarien garraioa barruko bide nabigarrietatik (2).
5110	Bidaiarien aireko garraioa.
5223	Aireko garraioarekin uztartutako jarduerak.
5510	Hotelak eta antzeko ostatuak.
5520	Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk.
5530	Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak.
5590	Beste ostatu batzuk.
5610	Jatetxeak eta janari-postuak.
5630	Edarien establezimenduak.
5813	Egunkarien argitalpena.
5914	Zinema erakusteko jarduerak.
7420	Argazkigintza-jarduerak.
7711	Automobilen eta motor arineko ibilgailuen alokairua.
7722	Bideo-zinten eta -diskoen alokairua.
7729	Norberaren beste gauza batzuen eta etxean erabiltzeko artikuluen alokairua.
7735	Aireko garraiobideen alokairua.

7911	Bidaia-agentzien jarduerak.
7912	Operadore turistikoen jarduerak.
7990	Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta horiekin lotutako jarduerak.
8219	Fotokopiak egiteko eta dokumentuak prestatzeko jarduerak, eta bulegoko beste jarduera espezializatu batzuk.
8230	Batzarren eta erakustazoken antolaketa.
9001	Arte eszenikoak.
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak.
9004	Ikuskizun-aretoen kudeaketa.
9104	Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta natura-erreserbetako jarduerak.
9200	Zorizko jokoen eta apustuen arloko jarduerak.
9321	Jolas-parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak.
9329	Beste jolas- eta entretenimendu-jarduera batzuk.
9601	Ehun- eta larru-janzkien garbiketa eta ikuzketa.
9604	Mantentze fisikorako jarduerak.